

# Ziurtasuna Elur-jausietan

## 1 Maila (ACNA)



## Bizkaiko Goi Mendi Eskola

### Ikastaroa: Seguridad en Terreno de Aludes (STA 1).

#### Sarrera

Azken urteetan mendizaleen artean elurtutako eremuetatik ibiltzeko joerak gorakada nabarmena izan du. Alde beretik, adituek egindako ikerketa sakon eta lan eskergaren ondorioz, elurraren portaeraz eta elur-jausien inguruko jakinduriak ere gora egin du.

Elurretatik ziurtasunez ibiltzeko elur geruza zein balditzetan dagoen jakitea garrantzitsua da. Etxetik egindako planifikazioak zein mendian egindako ikuskapenek elur jausiengatik eragindako istripuak ekidin diezagukete.

Ikastaro hau ACNAko (Asociación Conocimiento Nieve y Aludes) kide batek emango du. Gai honen inguruan ikertu dutenen ezagutzak elkarbanatzeaz gain dokumentu baten bidez ikastaroa egin izana ziurtatuko dizu.

#### Helburuak

- . Elur jausien eremua ezagutu eta ekiditu.
- . Irteera bat prestatzen ikasi
- . Estratifikazioaren eta elur jausien arriskuen arteko erlazioa ulertu.
- . Arriskua murrizteko teknika ikasi.
- . Autoerreskateko oinarrizko teknikak ikasi.





## Ikastaroko edukiak

- 1- Elur jausien guneak eta zelaiko tranpak.
- 2- Ibilbide ziurren diseinua.
- 3- Elurraren estratifikazioa.
- 4- Elurraren egungo baldintzak eta meteorologiaren efektuak (iragarpena).
- 5- Irteera baten prestaketa eta arriskuak ekiditzeko teknikak.
- 6- Elur jausiek eragindako istripuetan giza faktorearen garrantzia.
- 7- Oinarrizko erreskatea (DVA, pala, zunda eta antolaketa).

## Betekizunak

- . Aurretiko prestakuntzarik? Ez. Hitzaldiren batean egon izana edo argitalpen bat irakurri izana gomendatzen da.
- . Baldintza fisikoak: elurretatik erraztasunez ibiltzeko gaitasuna izatea (500 eta 1.000 metro arteko desnibelak).
- . Esperientzia: derrigorrezkoa da noizbait elurretatik ibili izana.

## Beharrezko materiala

1. Elurretarako oinetako aproposak
  - . Bota altuak eta iragazgaitzak edo eskiekin joateko-tan mendi eskiko botak.
- 2.- Ziurtasun materiala
  - . DVA, pala eta zunda (BMF-k ikasle batzuei materiala utzi ahal die).
- 3.- Neguko jardueretarako arropa.
  - Barrutik: kamiseta eta malla termikoa, galtzetin beroak eta eskularru finak.
  - Kanpotik: mendiko arropa iragazgaitza/transpirablea (frakak eta jaka), hotzerako fibrazko edo lumazko jaka.

- Eskularruak: eskularru iragazkitzak eramatea oso garrantzitsua eta aldatzeko beste pare bat ere.
- Beste batzuk: txanoa, eguzkitako betaurrekoak eta babesteko krema, bentiskako betaurrekoak, frontala, "buffa", botikina, ura ur beroa eta eguna pasatzeko janaria
- 4.- Motxila
  - 30-40 litroko mendiko motxila.
- 5.- Elurretatik ibiltzeko materiala.
  - Eskiak, Splitboarda edo elurretako erraketak.

## Prezioak eta lekua

- . Prezioak jakiteko gure webgunea bisitatu: [www.bmf-fvm.org](http://www.bmf-fvm.org)
- . Ikastaro hau Astun (Pirinioak) inguruan egingo da.
- . Ostatu eta desplazamenduko gastuak ikasleak ordaindu beharko ditu.

## Formatua

- .Aurreko asteazkenean klase teorikoa 3h (Miribilla-Bilbao)
- .Larunbata(6h praktika+ 3h teoria)
- .Igandea(6h praktika)

## Oharra

BMF-k ikasle batzuei materiala utzi ahal die (DVA, zunda, pala, erraketak), baina norberak bere materiala eramatea gomendatzen dugu.

